

# ANTONIO de OQUENDO

1577-1640



ANTONIO de OQUENDO

Itsasgizon horien guztien artean Antonio Okendo dirdiratsuen a izan zen, zalantzarik gabe. Donostian jaio zen eta gaztetan sartu zen Itsas Armadan. Lehenengoz Napoliko eskudran itsasoratu zen. Pixka bat geroago Ozeanoko Ontzidira igaro zen. Hots, ozeanoa zeharkatu eta Luis Fajardo Almirante adituaren agintepean zeuden ontzi unitateetan ibili zen. Garai hartan Britainiako ontzi kortsario bat suntsitzeko agindua eman zioten eta 1604ko uztailearen 15ean Lisboatik atera zen. Etsaia topatu ondoren trebetasunez eta bikaintasunez eraso zuen bere bi bajelekin eta ordu gutxitan garaitu zuen. Eraso arrakastatsu horrengatik, eta pixka bat geroago, Martin Bertendona hil zenean, Bizkaiko Eskuadraren agintea eman zioten, gainontzeko hautagaiei aurrea hartuz. Ausardia eta tinkotasuna erakutsiz, Kantauriko portuak suntsitzeko asmoz zetorren armada holandarrari aurre egiteko Armadaren ontziak portutik atera zituen. Erakutsitako balentriak ihesean jarri zituen Holandako ontziak eta orduan Kantauriko Eskuadraren agintea eman zioten (Bizkaiko, Gipuzkoako eta Lau hirietako eskudrek osatzen zuten garai hartan Kantauriko eskudra). Hortik aurrera bere lan nagusia kortsarioei erasotzea eta Lisboako eta Cadizeko portu inguruan Indiatako Ozeanoko ontzidiari babesa ematea zen. Gerran egindako ekintzak zirela eta, gaztea izan arren ospea eta aberastasuna eskuratu zituen, merezimendu osoz. Horren ondorioz Espainia Berriko Ontzidiaren jeneral izendatu zuten eta kortsario gisa ibiltzen ziren ontzi asko suntsitu zituen. Hala ere, 1624an lagunkeria eta ustelkeria leporatu zizkieten eta prozesatu egin zuten, hilabete batzuk beranduago bere irudia zuritu bazuten ere. Bere ausardia eta prestigio bikainarengatik 1626an Ozeanoaren Armada-buru izendatu zuten. Garaiezinen porrotaren ondoren, Espainiako itsas armada iluntasuneko garaietan murgiltzen ari zen bitartean, Okendo euskaldunak itsasbideetan argi berriak piztu zituen. Izan ere, hortik aurrera kanpainaz kanpaina ibili zen, besteak beste, 1628 eta 1631 bitartean Marmoren eta Brasilen Kortsarioen eta Holandarren aurka burututako kanpainak. Izan ere, bere bizitza arriskuan jarri Adrien Hans-Pater almirantearen eskudra hondoratu zuen. Hogeita hamar urteko gerran bere ekintzarik ospetsuena burutu zuen. Hots, lehen aipatutako Herbeheretako Ontzidiaren defentsa: 1639an Dunetako porrota ezin izan zuen ekidin baina galera handiak izan arren bizitza eta ontzia salbatu zituen askoz ontzi gehiago zuen Holandako eskuadraren aurrean. Porrotaren ondoren Frantziako Mardyck-eko portuan bilatu zuen babesa, baina gaixorik zegoen. 1640 hasieran Coruña heldu eta ezin izan zuen aurrera egin. Bertan zendu zen, medikuek ezin izan zuten ezer egin.

La figura de Antonio de Oquendo es sin duda la más brillante de aquel sólido clan de marinos. Nacido también en Donosita, entró muy joven en la Armada, navegando primero con la Escuadra de Nápoles. Pasó poco tiempo después a la Flota del Océano, es decir las unidades interoceánicas, a las órdenes del experimentado almirante Luis Fajardo. Se le encargó por entonces acabar con un buque corsario británico, saliendo de Lisboa el 15 de julio de 1604. Localizado el enemigo, batió sus dos bajeles con formidable denuedo contra el inglés, derrotándolo a las pocas horas. Su éxito le valió el nombramiento del mando de la Escuadra de Vizcaya tiempo después, tras la muerte de Martín de Bertendona, tomando enseguida la iniciativa frente a los rivales. Su carácter audaz y constante a la vez le hizo sacar las naves contra la Armada holandesa, que traía la intención de destruir los puertos del Cantábrico. El coraje demostrado provocó la huida de los holandeses, otorgándosele la autoridad de la Escuadra Cántabra (integrada por las de Vizcaya, Cuatro Villas y Guipúzcoa). Su labor se centró desde aquel momento en perseguir corsarios y cubrir la entrada de la Flota Oceánica de Indias en Lisboa y Cádiz. Aun con su juventud, ya había alcanzado fama y fortuna por méritos propios como guerrero nato. En función de ello sería designado algún tiempo general de la Flota de Nueva España, acabando con un buen número de buques dedicados al corso. No obstante, se le procesó durante 1624 por dudosas acusaciones de favoritismo, quedando sin embargo rehabilitado en pocos meses. A raíz de su formidable arrojo y prestigio le fue otorgado el rango de almirante de la Armada del Océano en 1626. Durante una época de oscuridad naval hispana tras el *Desastre de la Invencible*, el vasco Oquendo daba nueva luz a las singladuras marinas. Desde ese momento no paró en resolver campañas, como las de Mánora y Brasil entre 1628 y 1631 contra corsarios y holandeses. De hecho, mandó a pique la escuadra del almirante Adrien Hans-Pater con grave riesgo de su vida. Inmerso en el terrible conflicto de la *Guerra de los Treinta Años*, quedaba sin embargo su acción más renombrada, la referida defensa de la Flota en los Países Bajos, donde en 1639 salvó la nave y la vida a costa de enormes esfuerzos ante la Escuadra de Holanda, muy superior en número, si bien no pudo evitar la terrible derrota de Las Dunas. Tras el desastre, se refugió finalmente en el puerto de Mardyck (Francia) sin ser capturado, pero con la salud ya muy tocada. A principios de 1640 no logró pasar de La Coruña, donde falleció desahuciado por los médicos.

The figure of Antonio de Oquendo is undoubtedly the most brilliant of that solid clan of mariners. Born in Donosita, he joined the Navy at a young age, sailing with the Naples Squadron. He spent a short time in the High Seas Fleet, i.e., the trans-oceanic units, under the orders of a highly experienced admiral, Luis Fajardo. He was then ordered to destroy a British corsair and, consequently, left Lisbon on 15th July, 1604. Once he had sighted the enemy, he fought his two ships valiantly against the English vessel and defeated it in a few hours. His success was rewarded with an appointment to command the Biscay Squadron, after the death of Martín de Bertendona, where he immediately took the initiative against the enemy. His bold and persevering character led him to sail against the Dutch Fleet that intended to destroy the Bay of Biscay ports. His bravery caused the Dutch to retreat, for which he was granted command of the Bay of Biscay Fleet (formed by the Biscay, Cuarto Villas and Guipuzcoa Squadrons). From then on, he concentrated on chasing corsairs and protecting the West Indies Fleet when it arrived in Lisbon and Cadiz. In spite of his youth, he had achieved fame and fortune through his own merits as a born warrior. For a time he was appointed General of the New Spain Fleet and defeated a number of corsairs. However, he was prosecuted in 1624 for some shady accusations of favouritism but was reinstated a few months later. Thanks to his daring and prestige, he was granted the rank of Admiral of the Ocean Fleet in 1626. During the dark period of Spanish maritime history after the disaster of the *Armada*, Oquendo provided a new light to maritime missions. From that moment on, he never ceased to intervene in campaigns, such as the Mánora and Brazil campaigns against corsairs and the Dutch between 1628 and 1631. In fact, he sank the Admiral Adrien Hans-Pater's squadron at the risk of his own life. Within the context of the *Thirty Years' War*, his most famous action took place: the defence of the Fleet in the Netherlands where, in 1639, he saved the ship and his life with great effort against the Dutch Squadron, which had a greater number of ships, although he was unable to avoid the terrible defeat of Las Dunas. After the disaster, he finally found refuge in the port of Mardyck (France) without being captured but in poor health. Towards the beginning of 1640, he was unable to sail beyond Corunna, where he died.